

EROSKIK DIRUA BILTZEKO KANPAINA BAT JARRI DU ABIAN, MALLORCAN UHOLDEEN KALTEAK JASAN DITUZTENEN ALDE

- **Elkartasuna erakustera deitu ditu bezeroak eta ordainlekuetan borondatezko diru ekarpen bat egin dezatela eskatu die; biltzen den diru guztiari kopuru gehigarri bat erantsiko dio kooperatibak**
- **Herrialde hartako agintarien esku jarriko du dirua, uholdeen kalteak jasan dituzten familiak laguntzeko erabil dezaten**

Elorrio, 2018ko urriaren 19a.- [EROSKI](#)k dirua biltzeko kanpaina bat jarri du abian bere supermerkatu eta hipermerkatu guztietan, Mallorcan uholdeen kalteak jasan dituztenak laguntzeko helburuz. Bezeroek borondatezko diru ekarpen bat egin ahalko dute saltokietan, Balearretako uharte horretan kalteturik gelditu diren herritarren oinarritzko beharrak estaltzeko.

Joan den urriaren 9an, izugarritzko euri jasak izan ziren Mallorcan (220 litro inguru bota zituen metro koadro bakoitzeko), eta urak gainezka egin zuen etxeetan, errepideetan eta lur sailetan. Erreskate taldeak gogotik ari dira lanean Sant Llorenç des Cardassar herrian eta haren inguruetan.

Aste honetan, kanpainaren aldeko kartelak jarri dira EROSKIren dendetan, kontsumitzaileek elkartasuna ager dezaten eta borondatezko diru ekarpen bat egin dezaten ordainlekuetan igarotzean. *"Beste behin, elkartasuna agertzera deitzen ditugu kontsumitzaileak, eta seguru gaude ongi erantzungo dutela eta laguntza emango dietela uholde hondagarri horien ondorioak pairatzen ari direnei. EROSKItik saiatzen gara bizkor erantzuten larrialdi egoera hauetan, eta, gainera, guk ere diru kopuru gehigarri bat erantsiko diogu biltzen denari"*, adierazi du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Biltzen den dirua herrialde hartako agintariei helaraziko zaie, haiek oso-osorik bideratu dezaten uholde izugarri horren kalteak jasan dituzten familietara.

Sortu zenetik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki ohitura osasungarriak sustatzen, kontsumitzaileak hezten, ingurumena zaintzen eta elkartasuna

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
Xurdana Fernandez

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

Joana G. Landazabal
Eduarne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)